


HIRUBIDE IKASTURTEKO PLANA 2021 – 2022

Irunen, 2021eko azaroak 5

Aurkibidea

1.	Sarrera eta justifikazioa	4
1.1.	Helburuen aukeraketarako oinarri eta arrazoiak	4
1.2.	Erabakiak hartzean eragina izan duten aspektu edota faktoreak	5
1.3.	Eragiteko prozedura eta lan-metodologia	6
1.4.	Hezkuntza-komunitatearen ekarpenak	6
2.	Helburu orokorrak	7
3.	Helburu orokorrak eta justifikazioa	8
4.	Ikastetxearen funtzionamendu atalak	31
4.1.	Eskola egutegia eta ordutegia	31
4.2.	Ebaluazioen egutegia	33
4.3.	Irakasleriarekin eginbeharren esleipenerako irizpideak	34
4.4.	Tutoretzen banaketarako irizpideak	35
4.5.	Ikasleak taldekatzeko irizpideak	35
4.6.	Ikastetxean ezohiko arreta emateko saioen antolaketa	35
4.7.	Hezkuntza errefortzua eta laguntza antolatzeko irizpideak	35
4.8.	Amankomuneko guneen antolaketarako eta banaketarako irizpideak	36
5.	Esperientziak, programak eta proiektuak	38
6.	Irakasleen formakuntza eta garapen profesionala	45
6.1.	Ikastetxearen prestakuntza proiektu edota ekintzak	45
6.2.	Ikastetxearen beste prestakuntza proiektu edota ekintzak	46
6.3.	Irakasleriaren ikastetxez kanpoko prestakuntza ekintzak lan-ordutegian	46
6.4.	Ikastetxearen formakuntza planarekin lotutako lan-ordutegitik kanpoko ekintzak ...	46
7.	Ekintza osagarriak	48
8.	Eskolako zerbitzuak	61
9.	Ekonomia kudeaketarako plana	62
9.1.	Finantza baliabideen banaketaren irizpideak	62
9.2.	Ekonomia-kudeaketaren arduradunak	62
9.3.	Sarrera iturriak	62
9.4.	Sarreraren aurrikuspena	63
9.5.	Kontrol sistemak, gastuen justifikazioa eta erregistroa	63



9.6.	Jarraipena, bilera kopurua, datak.....	63
9.7.	Egin behar diren txostenak, edukina, nori informatu.....	63
10.	Hezkuntza komunitateari komunikazio plana.....	64
10.1.	Orokorra.....	64
10.2.	IUP-a ezagutzeko eta aprobatzeko estrategiak.....	65
11.	IUP-aren garapenaren eta ikastetxearen funtzionamenduaren jarraipena	66
12.	Eranskinak.....	67
12.1.	Irakasleak eta tutoretzen banaketa	67
12.2.	OOG osaketa.....	70
12.3.	Kontingentzia Plana	72
12.4.	OOG akta	100

1. Sarrera eta justifikazioa

1.1. Helburuen aukeraketarako oinarri eta arrazoiak

Aurten gure lehen urtea izango da zuzendaritzan. Horregatik, proposatzen den Ikastetxeko Urteko Plan honetan aurreko urteetako lanarekin jarraitu nahi dugu eta aldi berean, berrikuntza batzuk aurkeztu, beti ere, nahiz eta urte beterako plana izan, ondorengo urteetarako ere oinarri izaten jarraitzeko.


Irakasle taldearen nolabaiteko egonkortzeak (bai Hamaika Esku programarekin edota bitarteko irakasle askok Hirubide hautatzen dutelako berriz ere lehen aukera bezala) proiektu edota proposamen integralagoa eta sendoagoa aurkeztea errazten du.

Gure ikastetxea Hamaika Esku programaren barnean dago eta helburutzat gure ikasleen aniztasunaren trataera modu inklusibo batean egitea eta beraien emaitzak hobetzea dugu. Aurreko ikasturteko memoria abiapuntutzat hartu dugu helburuak aukeratu eta arrazoitzeko.

20-21 ikasturteko Elkarbizitza Planaren memorian eta “ikasleen zirkuluak” ekimenean aipatutako proposamenak kontutan hartuz, Elkarbizitza izango da helburu nagusietako bat. Aniztasuna baloratu eta errespetu behar dugu, kultura inklusiboa sortuz eta Hirubide komunitatea eraikiz, ikasleak gustura egoteko ikastetxean eta beraien arteko harremanak osasuntsu lantzeko. Hezkidetza planarekin ere jarraituko dugu, berrikuntzetako bat ikasleen batzordea sortzea izango delarik. Horretarako ikas komunitate guztiaren parte hartzea ezinbestekoa da.

Guzti hau, beti ere ikasleen emaitza akademikoak hobetzeko prozesu baten barruan proposatzen da. Konpetentziak lantzearen eta garatzearen garrantziarekin jarraituko dugu. Irakasleek behar duten formakuntza jaso beharko dute aniztasunaren arretan, behar berezietan aurre egiteko tresnetan, diziplinarteko proiektuak gauzatzeko estrategian eta konpetentzietan ebaluatzeko sisteman. Ikasleen emozioak ere landuko dira, batez ere azken bi urteetako pandemiaren ondorioak ikusita. Guzti horretarako ere, ditugun baliabideen koordinazio eraginkor baten beharra daukagu.

Bestalde, beste erronka nagusietako bat euskararen indartzea izango da, bai ikastetxean eta bai familiekin, beti ere gure testuinguru soziala oso erdalduna dela eta ikasleen euskara maila ikusirik.



Guzti honetan, lidergo pedagogiko eraginkorrak garrantzia handia hartzen du: programazio malguak, murriztuak, konpetentzietan oinarritutakoak eta gerora begira erraz egokitzekoak bultzatuz. Horretarako ikastetxearen erronka nagusi bat diziplinarteko proiektuak izango lirateke.

Gainera ikastetxearen digitalizazio prozesuarekin ere jarraituko dugu, Digitalizazio Plan integral orokor bat landuz, ikasleen eta irakasleen digitalizazio konpetentzia maila hobetzeko. Eta aldi berean, ikastetxearen ahalduntzea eta autonomia areagotzeko bidean, Proiektuen Plangintza Estrategiko baten beharra ikusten da, etortzeke dauden dekretu berriek dakartzaten behar eta eskaerak bideratzeko. Ikastetxeko autonomiak baliabideak geroz eta gehiago identifikatutako beharren arabera erabiliz, aniztasunari eta irakaskuntza prozesua geroz eta pertsonalagoa izatea ahalbidetzen du. Eta ikas komunitatearen parte hartzea ere bultzatu nahi dugu.

Bestalde, ikastetxeko AJA-ren zenbait puntu eguneratu beharra ere ikusten dugu.

Eta azkenik, COVID-19 pandemiak dakarren erronkarekin jarraituko dugu. Ikasturte honetan, pandemia aurretik genituen ekintza eta jarduerak berriz ere martxan jartzeko helburu izango dugu, beti ere, momentuko protokoloa jarraituz zuhertasunez egokitzapenak eginez. Besteak beste, ikasleen beharrei erantzuna emanez, Hauspoa-ko tailer ludikoak eta ikasketa bidaiak planteatzen.

1.2. Erabakiak hartzean eragina izan duten aspektu edota faktoreak

- DBH1-era sartzen diren ikasle berrien beharrak (akademikoak, emozionalak,...) eta gabeziak abiapuntu hartzea.
- Aurreko ikasturteko memoriako datuak: zenbait emaitza hobetzea, elkarbizitza lantzea.
- Ikasleen zirkulu eta hezkidetzeta-elkarbizitza batzordeen hobekuntza proposamenak.
- COVID-19-ren bilakaera eta bere ondorioak: ikasleen ongizatea, programa/proiektuen berpiztea.
- Ikasleentzako baliabideen koordinazio eraginkorra egitea eta euskararen indartzea.
- Konpetentzietan ebaluatzea eta diziplinarteko lan-metodologia beharra. Datozen hezkuntza dekretu berriak.
- Ikastetxearen software librearekiko apostua eta digitalizazio maila (ikasleak, irakasleak, prozesuak, ...).

1.3. Eragiteko prozedura eta lan-metodologia

Aurreko ikasturte bukaeran proposatutako hobekuntza beharrak aztertuta eta gaur egungo egoerari buruz hausnarketa eginda, klaustroan aurtengo erronkak proposatu ziren.

Erronka horiek helburuetan bihurtu ditugu eta zuzendaritza taldean proposatu. Mintegietan eta batzorde desberdinetan helburuak lortzeko jarduera eta lehentasunak landu dira.

Gurasoekin partekatu dugu OOG-ren aurretik irakurri ahal izateko eta ekarpenak egiteko.

1.4. Hezkuntza-komunitatearen ekarpenak

	bai ez		zer-nola
Klaustroa	X		Elkarlanean
Batzorde pedagogikoa	X		Elkarlanean
Zikloetako taldeak		X	
Mailetako taldeak	X		Elkarlanean
Departamentuak	X		Elkarlanean
Proiektuen arduradunak	X		Elkarlanean
Zikloetako koordinatzaileak		X	
Ikasleriaren ordezkariak	X		Elkarlanean
Familien ordezkariak	X		Elkarlanean
Admin. eta Zerbitzuen langileria	X		Elkarlanean
Zuzendaritza taldea	X		Elkarlanean
Entrepresak-erakundeak	X		Elkarlanean
Beste batzuk	X		Kaleko hezitzaileak, Kaledor Kayiko, Gizarte laguntzaileak, psikologoak, psikiatrak...

2. Helburu orokorrak

- HO1: Elkarbizitza, errespetua eta berdintasuna bermatzea. Aniztasunaren trataera sustatzen jarraitzea
- HO2: Ikasleen emaitza akademikoak hobetzea
- HO3: Euskararen indartzea D ereduko ikastetxe testuinguruan
- HO4: Eguneratze didaktikoa eta bere praktika garatzea
- HO5: Eskolaren digitalizazioarekin jarraitzea
- HO6: Ikastetxeen autonomia areagotzea, ahalduntzea
- HO7: Ikastetxeko arautegia eguneratzea beharrei aurre eginez
- HO8: COVID-19 egoerara egokitzea

3. Helburu orokorrak eta justifikazioa

HO1	Elkarbizitza, errespetua eta berdintasuna. Aniztasunaren trataera sustatzen jarraitzea
------------	---

Iturburuak:


Beste batzuk	Kanpoko agenteak	Hezkuntza administrazioa	Beste barne agente batzuk	Adm. eta zerb. proposam.	Familien proposamenak	Ikasleriaren proposamenak	Emaitza akademikoak	Ureko memoria	Hobekuntza plana	AJA	Curriculum proiektua	Zuzendaritza proiektua	Plan estrategikoa	Hezkuntza proiektua
x			x			x		x	x					x

Beste batzuk: Hamaika Esku, Elkarbizitza Plana, Hezkidetzeta Plana, Ikasleen zirkuluak


Kontuan hartu diren iturburuen aspektu zehatzen identifikazioa eta deskribapena eta eraginda diren ikastetxearen esparruak.

Aurreko ikasturtean Elkarbizitza Planaren memorian aipatutako proposamenak eta “ikasleen zirkuluak” ekimenaren memoria oinarritzat hartu dira aurtengo jarduerak diseinatzeko orduan (alde positiboak eta hobetu beharrekoak). Hezkidetzeta Plana aurreko ikasturtean amaitu zen eta eguneratuko dugu ikasturte honetan, 3 ildo nagusi helburu hartuz: pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean; hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista; emakumeen jakituriaren integrazioa eta haien ekarpen soziala eta historikoa; ikasleen hezkidetzeta batzordea. Berrikuntzetako bat ikasleen hezkidetzeta batzordea sortzea izango da.


Eta aniztasunaren trataera dela eta, 3 dimentsioetatik egingo da: kultura inklusiboa sortu, komunitatea eraikiz (segurua eta laguntzailea) eta balio inklusiboak ezarri (komunitatearekin partekatu eta kide berriei zabaldu). Bestalde, politika inklusiboa ezarri nahi da guztiontzat (parte-hartzea bultzatu eta laguntza sistema ezarri) eta aniztasunari erantzuteko laguntzak antolatu (espazioak, denbora, baliabide antolaketa). Eta azkenik, praktikak bultzatu, bai antolamenduan (elkarbizitza, hezkidetzeta eta IDU/DUA lan taldeak sortuz eta martxan jarri) eta baita baliabideak mobilizatzen ere.




HO1: Elkarbizitza, errespetua eta berdintasuna. Aniztasuna trataera sustatzen jarraitzea				
Jarduerak	Arduraduna-agentek	Denboralizazioa	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazleak eta datak
J1.1 Elkarbizitza batzordea martxan jarri (BAT taldea barne)	Zuzendaritza taldea. Elkarbizitza arduraduna. Hezkidetza arduraduna	Azaroa	Elkarbizitza-Hezkidetza Planak. Irakasleak	Aurreikusitako bilerak gauzatzea. Iraila
J1.2 Hezkidetza batzordea martxan jarri	Zuzendaritza taldea. Hezkidetza arduraduna	Azaroa	Elkarbizitza-Hezkidetza Planak. Irakasleak	Aurreikusitako bilerak gauzatzea. Iraila
J1.3 Bizikidetza behatokia, hezkidetza eta elkarbizitza taldeen ekimenak bateratu eta koordinatu	Zuzendaritza taldea	Ikasturtean zehar	Elkarbizitza Plana, Hezkidetza Plana.	Gauzatutako bilerak. Hiru hilabetero.
J1.4 Emozioak lantzeko jarduerak tutoretza planean txertatu	Orientazio mintegia. Tutoreak	Azaroa	Tutoretza Plana. Berritzegune materiala	Tutoretza planean txertatzea. Urria
J1.5 Ikasleen Harrera Plan Orokorra prestatzea	Tutoreak. Orientazio mintegia	Urtarriletik-apirilera	Orientazio materiala. Ikasleen zirkuluen emaitzak	Ikasleen Harrera Plan Orokorra dokumentua klaustroan onartzea. Ekaina
J1.6 Hezkidetza ikasle batzordea sortu eta lankidetzaz egin	Ikasketa Burua. Hezkidetza batzordea. Ikasleak	Ikasturte hasieran. Ikasturtean zehar	Hezkidetza Plana. Ikasleak	Taldea sortzea. Azaroa. Landutako jarduerak dokumentatzea. Maiatza.



J1.7 "Ikasleen zirkuluak" ekimenarekin jarraitu	Hezkidetza batzordea. Orientazio mintegia	Ikasturtean zehar	Hezkidetza Plana. Ikasleen zirkuluaren 20-21 memoria	21-22 ikasleen zirkulu memoria idatzi. Ikastetxeko memoria islatu hobekuntzak. Ekaina
J1.8 Hezkidetza Planeko ekimenak gauzatu: <ul style="list-style-type: none"> • Azaroan: Beldur barik lehiaketa • Martxoak 8: Emakume langileen eguna • Azaroak 25: Emakumeen aurkako Indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna • Maiatzak 17: LGTBI+ eguna • Hizkuntza ez-sexista erabili 	Zuzendaritza taldea. Hezkidetza batzordea	Ikasturtean zehar	Hezkidetza Plana	5 Ekintzak gauzatzea. Ikasturtean zehar
J1.9 Familiei Bizikasi eta sare sozialen inguruko formakuntza eman	Orientazio mintegia	2. hiru hilabetekoan	Orientazio plana	Aurreko deialdiko partaidetza %40 hobetzea. Ekaina
J1.10 Familien esperientziak ikasleei erakutsi (lanbideak, jatorriak,...)	Elkarbizitza batzordea	Urtean Zehar	Gelak, multimedia baliabideak (irratia,...)	Maila bakoitzean ekintza bat gauzatu. Ekaina.
J1.11 Diziplinarteko lankidetzak gela egonkorreko ikasleekin	Orientazio mintegia. Irakasleak	Urtean Zehar	Programazioak. Espazioak.	Mintegi bakoitzean ekintza bat gauzatzea. Ekaina
J1.12 Elkarbizitza hobetzeko, bai patioan eta bai barnean irratia bidez emititu: kantuak, elkarrizketak, berriak, agenda, ...	Ikasketa Burua. Orientazioa mintegia. Irakasleak	Urtean Zehar	Elkarbizitza Plana. Megafonia. Irratia	Ekintzak gauzatzea eta asebetetze maila (irakasle-ikasle) 8/10 izatea.
J1.13 "Bidasoa bixi" ekimena: patio garaian ikasleentzat kirol ekintzak sustatu eta txapelketak antolatu mailaka (Ping-Pong, saskibaloia, esku-baloia, pilota)	Gorputz Hezkuntza mintegia. Bidasoa Bixi arduraduna	1go hiru hilabetekoan	Bidasoa Bixi proiektua	Partehartze maila ikasleen %50 izatea. Ekimena bukatzerakoan



J1.14 Festen dinamizazioa errespetu, berdintasun eta Agenda30 gomendioak (zaborrak, birziklapena, kontsumoa, paperaren erabilera) jarraituz gauzatzea	Agenda30ko arduraduna. Festa Batzordeko arduraduna	Ikasturtean zehar	Agenda30 Elkarbizitza Plana Hezkidetza Plana	Ekintzak gauzatzea eta asebetetze maila 8/10 izatea. Kurtso bukaeran
J1.15 Aniztasuna eta Behar Bereziei arreta emateko irakasle taldearen koordinazio eraginkorra indartu: PT, HIPI, COVID irakasle gehigarriak, EUSLE irakasleak.	Zuzendaritza. Orientazio mintegia	Ikasturtean zehar	Orientazio mintegiko materiala. Berritzeguneko formakuntza	Ordutegien osaketan. Beharren arabera ordutegietan egokitzapenak egitea. Kurtsoan zehar.
J1.16 Eskolan kultur aniztasuna lantzeko tresnen formakuntza jaso	Orientazio mintegia	Urtariletik maiatza arte	Berritzegune	Orientazio mintegikoen %90ak jasotzea. Kurtso bukaeran



HO2	Ikasleen emaitza akademikoak hobetzea
-----	--

Iturburuak:


Beste batzuk	x
Kanpoko agenteak	x
Hezkuntza administrazioa	
Beste barne agente batzuk	x
Adm. eta zerb. proposam.	
Familien proposamenak	
Ikasleriaren proposamenak	
Emaitza akademikoak	x
Urteko memoria	x
Hobekuntza plana	x
AJA	
Curriculum proiektua	
Zuzendaritza proiektua	
Plan estrategikoa	
Hezkuntza proiektua	x

Beste batzuk: Hamaika Esku, Berritzegune


Kontuan hartu diren iturburuen aspektu zehatzen identifikazioa eta deskribapena eta eraginda diren ikastetxearen esparruak.

Hamaika Esku-ren luzapena izanda, bi helburu nagusi daude: emaitzak hobetzea eta aniztasunari erantzun egokia ematea. Konponbide pedagogikoak eskola-testuingurua arruntera eraman nahi ditugu (lehen ikaslearengan ardaztuta zegoen). Gure hobekuntza planean barruko emaitzak hobetzea dago lehentasun gisa (20-21 memorian komentatu bezala, batez ere Matematikan eta Ingelesean). Horregatik, ikasle bakoitza ikasgela heterogeneoan dago konpetentziak lantzen eta garatzen. Gure ikastetxeko aniztasuna handia dela eta, modu eraginkorrean erabiliko ditugu EUSLE programa, COVID-19 gehigarriak, HIPI irakasleak eta PT-ak. Irakasleek behar duten formakuntza jaso beharko dute aniztasunaren arretan, behar bereziei aurre egiteko tresnetan, diziplinarteko proiektuak gauzatzeko estrategian eta konpetentzietan ebaluatzeko sisteman. Ikasleen emozioak ere landuko dira, batez ere azken bi urteetako pandemia ondorioak ikusita.


HO2: Ikasleen emaitza akademikoak hobetzea				
Jarduerak	Arduraduna-agentek	Denboralizioa	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazleak eta datak
J2.1 Behar bereziei arreta emateko irakasle laguntzaileak antolatu eta koordinazio eraginkorra egin	Zuzendaritza taldea. Orientazio mintegia	Ikasturtean zehar	Orientazio mintegiko materiala. Giza baliabideak (PT, HIPI, COVID irakasle gehigarriak, EUSLE irakasleak). Berritzeguneko formakuntza	Ordutegien osaketan kontutan izan. Hasieran. Beharren arabera ordutegietan egokitzapenak. Kurtsoan zehar.
J2.2 Irakasleek aniztasunaren arreta eta teknikak formakuntza hartzea	Orientazio mintegia	Urrian	Orientazio mintegiko materiala.	Irakasleen %100-k jaso izatea. Urrian
J2.3 Hauspoa tailerren bitartez, aurreko ikasturteko suspenditutako ikasgaiak lanen bidez berreskuratzea aukera ematea	Irakasleak. Pendienteen tutoreak. Ikasketa Burua.	Urritik abendua arte	Hauspoa proiektua (errefortzu tailerrak)	Barneko emaitzak %70 hobetzea. Kurtso bukaeran
J2.4 Hauspoa tailerren bitartez, errefortzuak eman emaitzak hobetzeko identifikatu diren arloetan (matematika, ingelesa)	Irakasleak. Tutoreak. Ikasketa Burua.	Urritik maiatza arte	Hauspoa proiektua (errefortzu eta ludiko tailerrak)	Barneko emaitzak %20 hobetzea. Kurtso bukaeran
J2.5 Goi mailako gaitasun ikasleei arreta eman	Irakasleak. Orientazio mintegia	Ikasturte osoa	Formakuntzan jaso dugun materiala	Ebaluazio bilera guztietan ikasle hauekin egiten ari garen lana ebaluatzea.
J2.6 Aniztasunari arreta eman eta curriculum/programazio irisgarriak landu	Irakasleak. Orientazio mintegia	Ikasturte osoa	Curriculum, programazioak	Ikasle bakoitzaren beharren arabera ebaluatua izatea. Ikasturte osoan



J2.7 Aurreko ikasturteko memorian adierazitako hobekuntzarako neurriak martxan jarri	Zuzendaritza taldea. Irakasleak	Ikasturte osoa	Curriculum, programazioak (proiektuak, arazo-egoerak, diziplinarteko lana)	Hezkuntzako aplikazioko emaitza akademikoak %30a hobetzea. Kurtso bukaeran
J2.8 Ebaluazio frogak ikasleen %40-ak ez badute ebaluazio positibo bat lortzen, frogak errepikatu beharra	Mintegi buruak. Irakasleak	Ikasturte osoa	Ebaluazio frogak	Baldintza hori betetzen ez duten frogen %90a birplanteatua izatea. Kurtso bukaeran
J2.9 Komunikazioa gaitasuna lantzeko jarduerak programazioetan jarri	Mintegi buruak. Irakasleak	Urriaren 31	Programazioak	Programazioetan aipatzea. Urria
J2.10 Digitalizazioa eta euskara indartzea. Konfinatuak dauden ikasleen jarraipena.	Ikasketa Burua	Ikasturte osoa	COVID-19 irakasle gehigarriak. Moodle plataforma erabiliz.	Ikasturte hasieran ikasleen %90 Moodle-n trebatuak egotea. Ikasle konfinatuen %100en jarraipena lortzea. Kurtso bukaeran
J2.11 Orokorrean hizkuntza gabe etorri berriak diren ikasleei indartze neurriak eman	HIPI irakasleak	Ikasturte osoa	2 urte baino gutxiago Euskal Erkidegoan daramaten ikasleentzat irakasleen indartze ordu kopurua.	HIPI ikasleen %50ak aurrera egiteko gaitasuna lortzea. Kurtso bukaeran
J2.12 1go eta 2. mailan dauden hizkuntza gabe etorri berriak diren ikasleei indartzen neurriak eman irakasgai nagusietan	EUSLE irakasleak	Ikasturte osoa	EUSLE programa	2 ikasturteetan A2 maila lortzea, gerora beraien kabuz ikasketak euskaraz jarraitzeko. Kurtso bukaeran
J2.13 1, 2 eta 3. mailatan indartze neurriak ezartea hainbat irakasgaietan bigarren irakaslea gelan sartuz	Zuzendaritza taldea	Ikasturte osoa	Irakasleak: orokorrean, HIPI, COVID gehigarriak, EUSLE irakasleak, PT-ak	Emaitza akademikoak %20 hobetzea bigarren irakaslea dagoen irakasgaietan. Hiru ebaluazio bileretan
J2.14 DBH-ko 4. mailan B ereduko gelan, indartze neurriak jarri. (HBI)	Indartze irakasleak	Ikasturte osoa	HBI: Indartze irakasleak	B ereduko ikasleen %70k aurrera egitea. Kurtso bukaeran



J2.15 4.mailan 3. ibilbidea eskaintzea (HBI)	Indartze irakasleak	Ikasturte osoa	HBI: Indartze irakasleak Hamaika eskuko zerbitzu eginkizunak.	4.mailan %80 titulatzeari buruzko kursoa. Kursoa bukatzea
J2.16 Diziplinarteko jarduerak gauzatu, konpetentziak ebaluatzeko jarduerak landu	Zuzendaritza taldea. Irakasleak	Ikasturte osoa	Programazioak eta curriculumak	Programazioetan diziplinarteko jarduerak bat minimo txertatzea. Urria.
J2.17 Konpetentzietan ebaluatzeko mintegi guztien artean jarduerak koordinatuta indartu	Zuzendaritza taldea. Irakasleak	Ikasturte osoa	Programazioak eta curriculumak	Programazioetan azaltzea. Ebaluazio bileretan kontututa hartzea. Azken ebaluazioak.
J2.18 Azterketen planifikazioa: mugatu kopurua eguneko eta asteko, beti ere kopuru murrizteko (1go zikloan)	Ikasketak Burua. Irakasleak	Kurso osoan	Hodeia plataformako egutegian "azterketak" atala sortu.	Egun berdinean 2 eta aste berean 8 azterketa baino gehiago ez jartzea. Ebaluazio bakoitzaren bukatzea.



HO3	D ereduko ikastetxea. Euskararen sustapena
------------	---

Iturburuak:


<i>Beste batzuk</i>	X
<i>Kanpoko agenteak</i>	X
<i>Hezkuntza administrazioa</i>	
<i>Beste barne agente batzuk</i>	X
<i>Adm. eta zerb. proposam.</i>	
<i>Familien proposamenak</i>	X
<i>Ikaslerien proposamenak</i>	
<i>Emaitza akademikoak</i>	
<i>Urteko memoria</i>	X
<i>Hobekuntza plana</i>	X
<i>AJA</i>	
<i>Curriculum proiektua</i>	
<i>Zuzendaritza proiektua</i>	
<i>Plan estrategikoa</i>	
<i>Hezkuntza proiektua</i>	X

Beste batzuk: Hamaika Esku, EUSLE


Kontuan hartu diren iturburuen aspektu zehatzen identifikazioa eta deskribapena eta eraginda diren ikastetxearen esparruak.

Inguruko testuinguru soziala oso erdalduna dela ikusita, DBH 1-era datozen ikasleen euskara maila geroz eta baxuago dela, euskararekiko duten sentsibilizazio falta kontutan izanik eta ikasturte honetako baldintza berria ikusirik (aurten lehen ikasturtea dugu irakasle guztiek PL2 profila dutela eta azken ikasturtea B ereduko taldea daukagula), euskararen sustapena bai ikastetxe barruan eta bai familiekin gure ikastetxeko erronka handia dela ikusten dugu.

HO3: D ereduko ikastetxea. Euskararen sustapena				
Jarduerak	Arduraduna-agentek	Denboralizazioa	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazleak eta datak
J3.1 Normalkuntza plana berritu: <ul style="list-style-type: none"> • 2018-2022 Plana berrikusi • Datuak jaso • Diagnostika egin (AMIA) • Hausnarketa/Erabakiak hartu • 2022-2026 Plan berria aurkeztu 	Normalkuntza batzordea	Iraila-Martxoa	2018-2022 Normalkuntza Plana. Galdetegiak. Berritzeguneko materiala.	<ul style="list-style-type: none"> • Datuak jaso (urria-urtarrila): ikasle-irakasleak (%100), familiak (%65), langileak (%100). • AMIA eginda (otsaila) • Plan berriaren aurkezpena (apirila)
J3.2 Ikasle batzordea sortu: maila bakoitzeko ordezkariak aukeratu	Normalkuntza batzordea. Ikasketa burua.	Azaroa	Ikasleak	Hiru hilabete behin biltzea. Proposatutako hobekuntzen %50a gauzatzea.
J3.3 Animazioa ikastetxean indartu: Euskaren eguna, San Tomas, Inauteriak, Korrika, Santa Ageda	Normalkuntza batzordea	Ikasturtean zehar	Ikastetxeko instalazioak. Irakasle-ikasleak	Ekintzetan ikasle-irakasleen partaidetza %70. Ikasturte bukaeran.
J3.4 Megafonia/Irratia: Euskarazko edukiak emititzea: <ul style="list-style-type: none"> • Euskarazko abestien “play-list”-a • ikasleekin sortutako edukiak 	Normalkuntza batzordea	Ikasturtean zehar	Megafonia. Irrati gela. Berritzeguneko materiala	<ul style="list-style-type: none"> • Zerrenda: bi astero berritu. • Ikasleen edukiak: astero saio bat emititzea. Hiru hilabetero
J3.5 EUSLIDERRAK ekimena aurten ere lantzea: <ul style="list-style-type: none"> • Ordezkariak aukeratu • Formakuntza jaso/eman • Jarduerak gauzatu 	Normalkuntza batzordea	2. Hiru hilabetean	Udaletxeko materiala. Irakasleak.	<ul style="list-style-type: none"> • Formakuntza 6 ikasleek jasotzea (4 DBH) • Formakuntza: xx taldeei ematea (3 DBH) • Jarduerak gauzatzea: ikasle-partaidetza %75 Apirila



J3.6 Familiekin euskarazko komunikazioa hobetu	Zuzendaritza taldea. Irakasleak.	Ikasturtean zehar	Zirkularrak/Web-a Normalkuntza plana	Berrikusi zirkularrak %100 Web-ean ekintzak aipatu %80 Ikasturte bukaeran
J3.7 Komunikazio gaitasuna lantzeko jarduerak programazioetan jarri	Irakasleak	Urriak 31	Programazioak. Normalkuntza proiektua.	Komunikazio gaitasuna lantzeko jarduerak programazioetan aipatu. Urria
J3.8 Ikastetxe barneko komunikazioa: dokumentazioa egokitu	Zuzendaritza taldea	2. eta 3. hiru hilabetean	Normalkuntza eta Hizkuntza proiektua.	Irakasleekin dokumentuak: %80 Ikasleekin dokumentazio: %100 Barne prozesukoak: %75
J3.9 EUSLE programa	EUSLE arduradunak (2). Irakasleak	Ikasturtean zehar	EUSLE programa	Ikasle etorri berrien %100-k parte hartzea (familiek onartuta). Ikasturte bukaeran.
J3.10 Ikastetxeko seinalitika aldatu	Normalkuntza batzordea	2. hiru hilabetekoan	Normalkuntza Plana	Aldatuta: %100. Apirila
J3.11 Beste ikastetxeekin elkarlana sustatu (irakasleak)	Normalkuntza batzordea	2. eta 3. hiru hilabetekoan	Irakasleak	Beste ikastetxe bateko euskalduntze ekintza gauzatu. Ikasturte bukaeran



HO4	Eguneratze didaktikoa eta bere praktika garatzea
------------	---


Iturburuak:

<i>Beste batzuk</i>	X
<i>Kanpoko agenteak</i>	X
<i>Hezkuntza administrazioa</i>	
<i>Beste barne agente batzuk</i>	X
<i>Adm. eta zerb. proposam.</i>	
<i>Familien proposamenak</i>	
<i>Ikaslerien proposamenak</i>	
<i>Emaitza akademikoak</i>	X
<i>Urteko memoria</i>	X
<i>Hobekuntza plana</i>	X
<i>AJA</i>	
<i>Curriculum proiektua</i>	
<i>Zuzendaritza proiektua</i>	
<i>Plan estrategikoa</i>	
<i>Hezkuntza proiektua</i>	X


Beste batzuk: Berritzegune, programazioak

Kontuan hartu diren iturburuaren aspektu zehatzen identifikazioa eta deskribapena eta eraginda diren ikastetxearen esparruak.

Helburu nagusia IDU (Ikasteko Diseinu Unibertsala) lantzea da. Honela, curriculum/programazio malguak, murriztuak, konpetentzietan oinarritua, gerora egokitzapen gutxiago beharko lukeenak lantzea, beti ere ikaskuntzarako dauden oztopoak ezabatuz edota ahalik eta gehien murriztuz. Aurreko ikasturteetako diziplinarteko proiektuen astea ikastetxeko nortasunaren barne bilakatu denez, aurten ere ildo horretatik joko dugu, etorkizuneko metodologiaren oinarri finkatuz eta hobetzen. STEAM proiektuko ebaluazioa eta proposamenak ere erabiliko ditugu aurrerantzean diziplinarteko jarduerak diseinatzerako garaian.



HO4: Eguneratze didaktikoa eta bere praktika garatzea				
Jarduerak	Arduraduna-agentek	Denboralizazioa	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazleak eta datak
J4.1 Diziplinarteko lana indartzeko formakuntza jaso	Zuzendaritza taldea	1go hiru hilabeteetan	Konpetentziak lantzeko markoa. Curriculumuma.	Irakasleen %100k formakuntza jasotzea. Programazioetan: gutxienez jardura bat. Urrian.
J4.2 Behar berezien aniztasuna nola bideratu irakasgaietan formakuntza jaso	Orientazio mintegia	Urrian	Konpetentziak lantzeko markoa. Curriculumuma.	Irakasleen %100-k formakuntza jasotzea. Programazioetan azaltzea. Urrian.
J4.3 Konpetentzietan ebaluatzea, mintegi desberdinen arteko lana.	Zuzendaritza taldea.	2. hiru hilabeteetan	Konpetentziak lantzeko markoa. Curriculumuma.	Irakasleen %100ak formakuntza jasotzea. Kurtso bukaeran ebaluazio bileran aplikatzea.
J4.4 STEAM proiektua (diziplinartekoa): esperientziak jaso eta aztertu	STEAM arduradunak	Kurtsoan zehar	STEAM proiektua. Curriculumuma	STEAM proiektuko memorian, diziplinarteko lanketa-esperientzia dokumentatua izatea. Kurtso bukaeran
J4.5 Diziplinarteko proiektu astea: ebaluazio sistema hobetu.	Zuzendaritza taldea	2. hiru hilabeteetan	Diziplinarteko proiektu astea	Berrikuntzak (aurreko ikasturteko proposamenak) finkatzea eta dokumentatzea. Proiektu aste ondoren
J4.6 Irakasleen ebaluazioa: irizpideak eta ikuspegi hezitzaileak hobetu	Orientazio mintegia	Ebaluazio guztietan	Ebaluazio bilerak. Boletinak	Boletinetan ikuspegi hezitzailea aplikatuz, irakasgaien %100ak oharrak edukitzea.
J4.7 IDU formakuntza irakasleei egitea	Orientazio mintegia	2. hiru hilabeteetan	Berritzeguneko materiala	Irakasleen %100-k jasotzea formakuntza. Asebetetze galdetegia. 2. hiru hilabeteetan
J4.8 Azterketen ordeztasun jarduerekin ebaluatzea	Zuzendaritza taldea. Orientazio m.	2. hiru hilabeteetan	Egutegiko azterketen kopurua. Orientazio m. materiala.	Irakasleen %100-k jasotzea formakuntza. Azterketen kopurua %20 gutxitzea. Ikasturte bukaeran



HO5	Eskolaren digitalizazioarekin jarraitu: Plan Estrategikoa, Hodeia eta Sw libreak
------------	---


Iturburuak:

<i>Beste batzuk</i>	X
<i>Kanpoko agenteak</i>	X
<i>Hezkuntza administrazioa</i>	
<i>Beste barne agente batzuk</i>	X
<i>Adm. eta zerb. proposam.</i>	
<i>Familien proposamenak</i>	
<i>Ikaslerien proposamenak</i>	
<i>Emaitza akademikoak</i>	X
<i>Urteko memoria</i>	X
<i>Hobekuntza plana</i>	X
<i>AJA</i>	
<i>Curriculum proiektua</i>	
<i>Zuzendaritza proiektua</i>	
<i>Plan estrategikoa</i>	
<i>Hezkuntza proiektua</i>	X


Beste batzuk: Digitalizazio Plana, Berritzegune

Kontuan hartu diren iturburuen aspektu zehatzen identifikazioa eta deskribapena eta eraginda diren ikastetxearen esparruak.


Ikasleen irteera profila oinarri hartuta, eta konpetentzia digitalak gaur egungo gizartean duen garrantzia ikusirik, Ikastetxeren Digitalizazio Plan integral bat diseinatzea dugu helburu: ikasleen eta irakasleen digitalizazio konpetentzia maila hobetzea; zerbitzari zaharra utzita, software librean oinarritutako Hodeia plataforma inplementatu, ikasleen datuen babesa bermatuz; Hezkuntza Sailak banatuko dituen portatil berrien kudeaketa eta ekipo zaharren berrantolaketa egin; ikastetxeko prozesuak eraginkortasunez egiteko prozesu digitalak proposatzea.

**HO5: Eskolaren digitalizazioarekin jarraitu: Plan Estrategikoa, Hodeia eta Sw libreak**

Jarduerak	Arduraduna-agentek	Denboralizazioa	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazleak eta datak
J5.1 Batzorde digitala sortu (ikasle-irakasle-langileak) eta proposamenak landu (Sare sozialak,...)	Zuzendaritza taldea. IKT arduraduna	Azaroa-kurtso bukaera	Ikasle-irakasle-langileak	Batzordea osatzea. Azaroan. 10 proposamen gehitzea. Ekaina
J5.2 Ikastetxeko Proiektu Digitala (IPD): diagnostia (Selfie), hausnarketa, proposamena	IKT arduraduna	Ikasturtean zehar	IKT materiala	Ikastetxeko Proiektu Digitala (IPD) gauzatua eta OOG-k onartzea. Ekaina
J5.3 Irakasleek kompetentzia digitalean erdi mailako gaitasuna (B1) lortzeko (2023), formakuntza jasotzen hasi	IKT arduraduna	Ikasturtean zehar	IKT materiala. Irakasleak	Formakuntza irakasleen %100-k jasotzea. Ekaina
J5.4 Irakasgai guztietan Moodle-n erabilera egin eta metodologian digitalizazioa integratu	Zuzendaritza taldea. Irakasle guztiak	Urria	Moodle. Programazioak	Ikasleen %100ak Moodle-n ariketa bat. Programazioetan islatzea. Azaroa
J5.5 Digitalizazio jasagarria sustatu ikasleekin: solasaldiak, formakuntza, ...	IKT arduraduna. Irakasle guztiak	Ikasturtean zehar	IKT-ko materiala. Irratia. Kanpo-enpresa	Solasaldiak: 3 egitea. Formakuntza: irakasle guztiak bat egitea. Ekaina
J5.6 Ikastetxeko funtzionamendurako Hirubide Hodeia erabiltzea: dok. berrantolaketa, egitura.	Zuzendaritza taldea. IKT arduraduna	Uztaila-azaroa	IKT-ko materiala. Kanpoko enpresa	Zerbitzari zaharreko dok. Hodeian: %80 (abendua) eta %100 (apirila).
J5.7 Ikasleak Hirubide Hodeia (Next Cloud) plataforman lanean hasia	IKT arduraduna. Irakasle guztiak	Urtarrila	Ikasleen portatilak. Irakasleak	Ikasle guztiak hodeian lanean hasia. Otsaila.
J5.8 Familiekin komunikazio digitala indartu/hobetu: web gunearen erabilera sustatu, komunikazioaren eraginkortasuna areagotu	Zuzendaritza taldea. IKT arduraduna.	Ikasturtean zehar	Web gunea, emaila (zirkularrak)	Web gunea: sarrerak %20 igotzea. Familiei galdetegiak: %60-k erantzutea.



J5.9 Ordenagailuen kudeaketa: portatil berriak eta gelak	Zuzendaritza taldea. IKT arduraduna. Tutoreak	Azaroa eta ikasturte osoa	Portatil berriak/zaharrak	Gurasoekin kontratua sinatuta: %100. Geletakoak berrerabili. Abendua (DBH1) eta ekaina (DBH2,3,4)
J5.10 Familien IKT formakuntza	IKT arduraduna. IGE	Urtarrila-apirila	Ikastetxeko IKT ekipoak	Formakuntza saioan partehartzea %75. Ikastaro amaieran.



HO6	Ikastetxeen autonomia areagotzen, ahalduntzea
------------	--


Iturburuak:

<i>Beste batzuk</i>	X
<i>Kanpoko agenteak</i>	X
<i>Hezkuntza administrazioa</i>	
<i>Beste barne agente batzuk</i>	X
<i>Adm. eta zerb. proposam.</i>	
<i>Familien proposamenak</i>	X
<i>Ikaslerien proposamenak</i>	
<i>Emaitza akademikoak</i>	X
<i>Urteko memoria</i>	X
<i>Hobekuntza plana</i>	X
<i>AJA</i>	X
<i>Curriculum proiektua</i>	
<i>Zuzendaritza proiektua</i>	
<i>Plan estrategikoa</i>	
<i>Hezkuntza proiektua</i>	X

Beste batzuk: Berritzegunea, Dekretuak, Europako Batzordea (KA2 proiektuak)


Kontuan hartu diren iturburuen aspektu zehatzen identifikazioa eta deskribapena eta eraginda diren ikastetxearen esparruak.

Berritzegunetik esan bezala, hurrengo ikasturterako ikastetxeak Proiektuen Plangintza Estrategikoa egin beharra dauka. Gure testuinguruaren hausnarketa egingo dugu eta bereziki zein proiektu/esparru landu nahi ditugun identifikatu eta proposatuko ditugu. Aldi berean, lidergo pedagogikoa ere indartu nahi dugu, etortzeko dauden dekretu berriek dakartzaten beharrei eta eskaerak bideratzeko. Ikastetxearen ahalduntze prozesuan ere, pausu bat gehiago eman nahiko genuke eta aurreko ikasturteetako proposamenak oinarri hartuta (diziplinarteko espazioak sortzea eta metodologia inplementatzea; beste




ikastetxeekin elkarlana egitea, esperientziak partekatuz) KA2 proiektuetan sartzeko asmoa dugu; lehenengo deialdiak eta programak ezagutu eta ondoren baten batean parte hartu. Gainera, komunikazio plan baten beharra dagoela ikusita, batzorde bat martxan jartzea da asmoa.

HO6: Ikastetxeen autonomia areagotzen, ahalduntzea				
Jarduerak	Arduraduna-agentek	Denboralizazioa	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazleak eta datak
J6.1 Ikastetxeko AMIA egin. Prozesua: <ul style="list-style-type: none"> Galdeketa eta hausnarketak Erabakiak hartu 	Zuzendaritza taldea	Azaroa-Maiatza	Ikastetxeko AMIA Hezkuntza Komunitatea	Galdeketa gauzatu. Hausnarketa dokumentua sortua. AMIA eginda. Kurtso bukaeran
J6.2 Proiektuen Plangintza Estrategikoa: diagnostikoa gauzatu. Eskolaren testuingurua eta kultura kontutan izanda, zein proiektu/esparru mota diren estrategikoak identifikatu eta justifikatu	Zuzendaritza taldea, Mintegi arduradunak, Batzordeak	Azaroa-Abendua	Mintegi Buru bilerak Berritzeguneko laguntza	Diagnostiko dokumentua gauzatzea. Abendua
J6.3 Proiektuen Plangintza Estrategikoa (2-4 urteetarako): helburuak, ekintzak, arduradunak adostu eta datak proposatu	Zuzendaritza taldea, Mintegi arduradunak, Batzordeak	Urtarrila-Otsaila	Mintegi Buru bilerak Berritzeguneko laguntza	Helburu eta ekintzen dokumentua gauzatzea. Apirila
J6.4 Zuzendaritzaren Lidergo Pedagogikoa sustatu	Zuzendaritza taldea	Lehen hiru-hilabete	Berritzeguneko Zuzendari berrien formakuntza	Zuzendariak formakuntza jasotzea. Urriko azken astea
J6.5 Ikastetxeko mintegietan lidergo pedagogikoa sustatu, jasotako Berritzeguneko formakuntza zabalduz	Batzorde/proiektu arduradunak	Ikasturtean zehar	Berritzeguneko mintegien formakuntza	Mintegi guztiak formakuntza jasotzea. Ikasturtean zehar



J6.6 Eraldatze lidergoa: Hezkuntza Lege berriei aurre egiteko beharren identifikazioa (espazioak)	Zuzendaritza taldea, Mintegi arduradunak, Batzordeak	Urria-Otsaila	Hezkuntza Lege berria. Proiektuen Plan Estrategikoa	Espazio berrien beharren dokumentua sortzea. Martxoa-Apirila
J6.7 Lidergo partekatua sustatu, mintegi buru eta proiektu arduradunen koordinazioa indartuz	Zuzendaritza taldea, Mintegi arduradunak, Batzordeak	Ikasturtean zehar	Jasotako formakuntzak. Koordinazio bilerak	Autoebaluazioa, emaitza 8/10. Ikasturtean zehar
J6.8 Ikastetxeko esperientziak partekatu: proiektu europarrak (KA2) eta finantzazioa. Formakuntza	Proiektu europarren arduraduna	Abendua-Urtarrila	Formakuntza irakasleei	Irakasleen %90ak formakuntza jasotzea. Urtarrila/Otsaila
J6.9 Ikastetxeko esperientziak partekatu: proiektu europarrak (KA2) eta finantzazioa. Proiektuen bilaketa eta proposamena	Proiektu europarren arduraduna	Urtarrila-Otsaila	Europako Batzordea webgunea eta dokumentuak	Proiektu deialdien eskema eta kontaktuak egitea. "Partner" gisa proposamen bat bideratzea. Ekaina
J6.10 OOG-ko kideen partehartze aktiboa sustatu	Zuzendaritza taldea.	OOG-ko bileretan	Ikastetxeko baliabide digitalak	Asebetetze maila 8/10 izatea. OOG bileren ondoren.
J6.11 IGE-ren partehartze eta elkarlana sustatu	Zuzendaritza taldea. IGE-ren ordezkariak	Bi hilabetero bilerak.	Ikastetxeko proposamenak. IGE-ren proposamenak	Ikasturtean 4 bilera egitea. Ikasturte bukaeran
J6.12 Komunikazio Plana sortu: informatu, parte-hartu eta iritziak jasotzeko.	Zuzendaritza taldea. Komunikazio batzordea	Urtarriletik apirilera	Ikastetxeko informazioa. IKT baliabideak.	Komunikazio Plana dokumentua sortzea. Ikasturte bukaeran



HO7	Ikastetxeko arautegia eguneratzea beharrei aurre eginez
------------	--

Iturburuak:


<i>Beste batzuk</i>	X
<i>Kanpoko agenteak</i>	X
<i>Hezkuntza administrazioa</i>	
<i>Beste barne agente batzuk</i>	X
<i>Adm. eta zerb. proposam.</i>	
<i>Familien proposamenak</i>	
<i>Ikaslerien proposamenak</i>	
<i>Emitza akademikoak</i>	
<i>Urteko memoria</i>	X
<i>Hobekuntza plana</i>	X
<i>AJA</i>	X
<i>Curriculum proiektua</i>	
<i>Zuzendaritza proiektua</i>	
<i>Plan estrategikoa</i>	
<i>Hezkuntza proiektua</i>	

Beste batzuk: OOG, Autobus Zerbitzua


Kontuan hartu diren iturburuen aspektu zehatzen identifikazioa eta deskribapena eta eraginda diren ikastetxearen esparruak.

18-19 ikasturtean hasi zen AJA eguneratzeko prozesua. Hala ere, COVID pandemia hasi denetik ez da ataza honetan aurreratu.

21-22 ikasturtean hilabetean bitan biltzeko aukera izanez gero (elkarbizitzako orduak bat erabiliz), helburua AJA birpasatu eta eguneraketa behar duten kapituluak identifikatu nahi dira eta haiek landu. Hasieran, aurreko ikasturteetatik datorren beharra landuko da: liburutegi, autobusa eta ikasle ordezkarien hautaketa prozesuan (legeak uzten duen heinean) aldaketak proposatu nahi dira.



HO7: AJA eguneratzea: liburutegia eta autobuseko araudia eguneratu				
Jarduerak	Arduraduna-agenteak	Denboralizazioa	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazleak eta datak
J7.1 AJA eguneratzeko taldea lanean hasi	Zuzendaritza Elkarbizitza batzordea	Kurtso hasieran	Giza baliabideak. Dekretuak. Arautegi ofiziala. AJA	Taldea osatzea. Kurtso hasieran.
J7.2 Liburutegiko araudia eguneratzea	Zuzendaritza Elkarbizitza batzordea	1go hiru hilabete	Gaur egungo AJA	AJA-n proposamena gauzatzea. Klaustro eta OOGn aprobatazea. 2. hiruhilabete
J7.3 Autobuseko araudia eguneratzea	Zuzendaritza Elkarbizitza batzordea	2. hiru hilabete	Gaur egungo AJA	AJA-n proposamena gauzatzea. Klaustro eta OOGn aprobatazea. 3. hiruhilabete
J7.4 AJA-n eguneraketa behar duten kapituluak identifikatu eta haietan lan egin	Zuzendaritza Elkarbizitza batzordea	Kurtsoan zehar	Gaur egungo AJA	Hilabete behin taldea biltzea. 21- 22 memorian azaltzea. Ekainan



HO8	COVID-19 egoerara egokitu eta bere inpaktua. Hauspoa programa. Eskolako bidaiak
------------	--

Iturburuak:

<i>Beste batzuk</i>	<i>Kanpoko agenteak</i>	<i>Hezkuntza administrazioa</i>	<i>Beste barne agente batzuk</i>	<i>Adm. eta zerb. proposam.</i>	<i>Familien proposamenak</i>	<i>Ikasleriaren proposamenak</i>	<i>Emaitza akademikoak</i>	<i>Urteko memoria</i>	<i>Hobekuntza plana</i>	<i>AJA</i>	<i>Curriculum proiektua</i>	<i>Zuzendaritza proiektua</i>	<i>Plan estrategikoa</i>	<i>Hezkuntza proiektua</i>
X	X		X		X		X	X	X	X				X

Beste batzuk: OOG

Kontuan hartu diren iturburuen aspektu zehatzen identifikazioa eta deskribapena eta eraginda diren ikastetxearen esparruak.

Ikasturte honetan COVID-19 pandemiak dakarren erronkarekin jarraitzen dugu. Pandemia aurretik genituen ekintza eta jarduerak berriz martxan jartzea izango dugu helburu (ahal diren neurrian) eta beti ere ikasleen emozioei arreta emanez eta arlo horretan ikasleak zainduz: metodologia aldaketak, berrantolaketa fisikoak, baliabide berriak, ... Erronken artean, momentu oro kontingentzia plana eguneratzea, Hauspoa-ko tailer ludikoak berreskuratzea, patioen dinamizazioa lantzea, ikasketa bidaiak antolatzea eta familiekin elkarlanean ekintza osagarri-eskolaz kanpokoak antolatzea daukagu momentuko protokoloak dioen neurriak bermatuz.

HO8: COVID-19 egoerara egokitu eta bere inpaktua. Hauspoa programa. Eskolako bidaiak

Jarduerak	Arduraduna-agenteak	Denboralizazioa	Baliabideak	Ebaluazioa: adierazleak eta datak
J8.1 Ikasleen arlo emozionala landu geletan (Bizikasi)	Orientazio mintegia	1go hiru hilabeteetan	Berritzeguneko materiala	Tutoretza planean txertatu "ikasleen arlo emozionala" ekintzak. Abendua.
J8.2 Kontingentzia Plana: COVID-19 protokoloak eguneratu, ikastetxeko eremu guztietara egokitu	Zuzendaritza taldea. Covid-19 arduraduna	Ikasturtean zehar	Hezkuntzako COVID-19 protokoloa, ebazpenak	Dokumentazioa eguneratua edukitzea. Protokolo aldaketa dagoen bakoitzean
J8.3 Hauspoa-ko tailer ludikoak berriz martxan jartzea	Hauspoa arduraduna	Urtarriletik aurrera	Hauspoa proiektua, irakasleak.	19-20 ikasturteko tailer ludikoen %80 berreskuratzea. Ekaina.
J8.4 Patioen dinamizazioa: Bidasoa Bixi ekimena martxan jartzea	Covid-19 arduraduna, Gorputz Hezkuntza mintegia	1go hiru hilabeteetan	Bidasoa Bixi proiektua, Kontingentzia Plana	Ekintzak covid-19ra egokitzea. Abendua.
J8.5 Ikasketa bidaia eta ikasturte bukaerako bidaiak	Zuzendaritza taldea. Covid-19 arduraduna. Irakasleak	Apirila-ekaina	Hezkuntzako COVID-19 protokoloa, ebazpenak	Ahal den neurrian DBH4-ko ikasketa bidaia eta DBH1,2 eta 3ko ikasturte bukaerako bidaiak gauzatzea. Ekaina.
J8.6 Ekintza osagarriak: txangoak, ekitaldiak, ...	Zuzendaritza taldea. Covid arduraduna. Mintegi buruak	Ikasturtean zehar	IUP, Hezkuntzako COVID-19 protokoloa, ebazpenak	Ekintzen %80a gauzatzea (covid-19ra egokituta). Ekaina.
J8.7 Familiek proposaturiko ekintza osagarriak berreskuratu: tailerrak, formakuntzak, ekitaldiak, ...	IGE batzordea. Zuzendaritza taldea	Azarotik aurrera	IGE-ren proposamenak, ikastetxeko baliabideak (IKT, espazioak, gelak,...)	19-20 ikasturtean familiek antolatu zituzten tailerren kopurua %10 handitzea

4. Ikastetxearen funtzionamendu atalak

4.1. Eskola egutegia eta ordutegia

EGUTEGIA

2021-2022 IKASTURTEKO EGUTEGIA

IRAILA-SEPTIEMBRE							URRIA-OCTUBRE						
A	M	E	E	B	Z	D	A	M	E	E	B	Z	D
		1	2	3	4	5					1	2	3
6	7	8	9	10	11	12	4	5	6	7	8	9	10
13	14	15	16	17	18	19	11	12	13	14	15	16	17
20	21	22	23	24	25	26	18	19	20	21	22	23	24
27	28	29	30				25	26	27	28	29	30	31
AZAROA-NOVIEMBRE							ABENDUA-DICIEMBRE						
1	2	3	4	5	6	7			1	2	3	4	5
8	9	10	11	12	13	14	6	7	8	9	10	11	12
15	16	17	18	19	20	21	13	14	15	16	17	18	19
22	23	24	25	26	27	28	20	21	22	23	24	25	26
29	30						27	28	29	30	31		
URTARRILA-ENERO							OTSAILA-FEBRERO						
					1	2		1	2	3	4	5	6
3	4	5	6	7	8	9	7	8	9	10	11	12	13
10	11	12	13	14	15	16	14	15	16	17	18	19	20
17	18	19	20	21	22	23	21	22	23	24	25	26	27
24	25	26	27	28	29	30	28						
31													
MARTXOA-MARZO							APIRILA-ABRIL						
	1	2	3	4	5	6					1	2	3
7	8	9	10	11	12	13	4	5	6	7	8	9	10
14	15	16	17	18	19	20	11	12	13	14	15	16	17
21	22	23	24	25	26	27	18	19	20	21	22	23	24
28	29	30	31				25	26	27	28	29	30	
MAIATZA-MAYO							EKAINA-JUNIO						
						1			1	2	3	4	5
2	3	4	5	6	7	8	6	7	8	9	10	11	12
9	10	11	12	13	14	15	13	14	15	16	17	18	19
16	17	18	19	20	21	22	20	21	22	23	24	25	26
23	24	25	26	27	28	29	27	28	29	30			
30	31												

OHARRAK:

Iraila-Septiembre: 8 Aurkezpena / Presentación
 Urria-October: 11-12 Pilar
 Azaroa- Noviembre: 1 Santu Guztieng Eguna / Todos los Santos
 Abendua-Diciembre: 6-7-8 Konstituzioa / Inmakulada, 23-31 Gabonetako oporrak / Vacaciones de Navidad
 Urtarrila-Enero: 1-7 Gabonetako oporrak / Vacaciones de Navidad
 Otsaila-Febrero: 28 Inauteriak / Carnavales
 Martxoa-Marzo: 1 Inauteriak / Carnavales
 Apirila-Abril: 11-22 Aste Santua / Semana Santa
 Ekaina-Junio: 21 Kurtso azken eguna / Último día de curso

ORDUTEGIA

Aurtengo ordutegia egunero bera da: Goizeko **8:00**etik, eguerdiko **14.00**era.

Saioak 55 minututakoak dira:

Saioa	Orduak	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
1	08:00-08:55					
2	08:55-09:50					
	09:50-10:05	Atsedenaaldia				
3	10:05-11:00					
4	11:00-11:55					
	11:55-12:10	Atsedenaaldia				
5	12:10-13:05					
6	13:05-14:00					
HAUSPOA	14:30-15:15	Hauspoa		Hauspoa (IGE)	Hauspoa	
	15:15-16:00	Hauspoa		Hauspoa (IGE)	Hauspoa	
Bidelaguna	14:30-16:30	Bidelaguna 1DBH	Bidelaguna 2DBH	Bidelaguna 1DBH	Bidelaguna 2DBH	X

Bidelaguna:

Astelehenetik ostegunera **14:30**etik **16:30**etara.

Hauspoa:


Astelehen, astearte eta ostegunetan **14:30**etik **15:15**etara eta **15:15**etik **16:00**tara.

Autobusa:

Egunero: ikastetxera juteko lehen txanda **07:20**etan eta bigarrena **07:45**etan; buelta, egunero **14:10** eta **14:30**etan, asteazkenetan **izan ezik 14:45**etan dela.

Jangela:

Bi txanda izango dira **14:00**tik **14.25**era eta **14:25**etik **14:50**era.



4.2. Ebaluazioen egutegia

KURTSO HASIERA

Irailak 22: Gurasoen bilera tutoreekin

- 1. zikloa: 16:30
- 2. zikloa: 17:30

EBALUAZIOAK

1. EBALUZIOA 21/09/09 - 21/12/03

- Aurrebaluazioa:
 - Irailak 29: 2. zikloa
 - Irailak 30: 1. zikloa
- Ebaluzio bilerak:
 - Azaroak 24: 2. zikloko bilera
 - Abenduak 1: 1. zikloko bilera
 - Abenduak 3: txosten banaketa

2. EBALUZIOA 21/12/06 - 22/03/11

- Martxoak 2: 2. zikloko bilera
- Martxoak 9: 1. zikloko bilera
- Martxoak 11: txosten banaketa

3. EBALUZIOA 22/03/14 - 22/06/16

- Aurrebaluazioa:
 - Maiatzak 11: 2. zikloa
 - Maiatzak 18: 1. zikloa
- Ebaluzio bilerak:
 - Ekainak 13: 2. zikloko bilera
 - Ekainak 14: 1. zikloko bilera
 - Ekainak 16: Ohiko deialdiaren txosten banaketa
 - Ekainak 17 eta ekainak 20: Ez-ohiko azterketen prestakuntza saioak
 - Ekainak 21-22: Ez-ohiko azterketak
 - Ekainak 23: Ebaluzio saioak
 - Ekainak 24: Txosten banaketa eta ikasturte bukaerako jaiak

4.3. Irakasleriarekin eginbeharren esleipenerako irizpideak

Eskolako eginbeharrak irakasle guztien artean banatzen dira. Eskolako proiektu guztiak irakasle finkoen artean banatzea saiaterik da, modu horretan ziurtatzen delako proiektuen jarraipena. Hamaika esku programak ematen dituen baliabideak irizpide hau errazten dute.

Ikasturte honetan orain artekoak mantenduz, besteak beste lau arduradun berri daude:

- COVID arduraduna: aurreko urte arte zuzendaria izan zena.
- Proiektu Europarren arduraduna: lan hau egiteko gaixotasunarengatik ordu lektiboen murrizketa daukan irakasle bat esleitu da.
- EUSLE arduradunak: Euskara mintegiko bi irakasle finko dira.
- Irrati arduraduna: Ikasketa Buruak hartu du ardura.

Honako taula honetan azaltzen dira ikastetxeko ardurak:

Eginbeharrak	Arduraduna
Elkarbizitza batzordea	Zuzendaritza taldea, Amaia Herrero eta Afrika Jimenez
Hezkidetza batzordea	Afrika Jimenez, Amaia Herrero, Eider Martinez, Arantxa Galdos, zuzendaritza taldea
IKT eta Web orria	Iñigo Gebara
Jangela	Aloña Agirre
Hauspoa eta Bidelaguna	Eneritz Gartzia
Agenda 30	Amaia Etxarri
Irratia	Imanol Urresti
Arriskuen Prebentzio eta segurtasuna	Isabel Porres
COVID19 koordinatzailea	Amaia Herrero
Normalkuntza eta IKKI	Zaloe Lopez de Munain
EUSLE	Lourdes Noguerras, Ainhoa Pikabea
Liburutegia	Arantza Galdos
Proiektu Europarrak	Arantza Galdos
STEAM	Aloña Agirre/Iñigo Gebara
Bidasoa Bixi	Amaia Herrero/Miren Lanz
Eskolako dinamizazioa	Leire Gandarias, Eneritz Gartzia, Zaloe Lopez de Munain
Memoria Historikoa	Juan Carlos Gamarra

4.4. Tutoretzen banaketarako irizpideak

Ahal den neurrian ziklo osoan tutore bera izatea.

Behin betirako plaza duten irakasleen artean ahal den neurrian tutoretza gehienak banatzen dira

Beti ere, ikastalde zailenak ez dira irakasle berriei uzten.

Era berean, mintegi guztietako partaideen artean banatzen da ahal den neurrian.

Bikoizketa irakasgaiko irakasleen kasuan, talde guztiari ematea da irizpidea.

4.5. Ikasleak taldekatzeko irizpideak

- Taldekatzeko 1go irizpidea eredia izango da.
- 1go DBHn, LH ikastetxeko tutore, orientatzaile eta zuzendaritzaren iritzia kontuan hartzen da (jarrera, garapena, lagun taldeak, ...).
- Jarrera arazoak daudenean talde desberdinetan banatzea.
- Haez gain, honako irizpideak ere jarraitzen dira: behar berezien arreta oreka, EUSLE programan daudenak, neska-mutilen arteko oreka, errepikatzaile kopurua.

Honela, 1 DBHn 3 talde izan beharrean, 4 talde izango dira. 2. eta 3. DBHn 3 talde osatu dira.

